

## Lau eta Erdiko Txapelketea irabazi dau Aldaik

Amaia Aldaik, Buruz Buruko Master Laboral Kutxako txapela jantzi eban abenduaren 17an Durangon, Goiuri Zabaletari 22-13 irabazi ostean. Txapelketearen seigarren edizinoa izan da hau eta eurretatik hiru irabazi ditu Dimako pelotariak.

Master Laboral Kutxako Lau eta Erdiko beste txapel bat be joan zan Dimara. Izan be, pelota mistoko Gazte mailan, Malen Lamadrid dimoztarrak irabazi eban txapelketea bere kategorian Onintza Galdosen kontra 18-13 eginda. **11. orrialdea**



## Eraso matxistei erantzuna suspertu zan Arratian igaz

**A** magoia Villanueva Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardintasun Teknikariaren eretxian, Arratian alkarlan handia egin da gizarte eragile eta erakundearen artean indarkeria matxisteari aurre egiteko. Horren emaitza dira hainbat protokolo: jaietako eraso matxistei aurre egitekoak, herrietakoak eta protokolo mankomunadu inter-instituzionala, hain zuzen be. Herri gintzatik abiatuta, protokoloak mobimentu feministearen konpromisoa eta gizartearen sensibilizazioa adierazoten dabela dino. Andra biktimei adierazotako alkertasuna be aitatu dau Villanuevak 2023 urteko balantzea egiterakoan. **8. eta 9. orrialdeak**



## Kontzertu, kabalgata eta ekintza gehiago urte hasikeran

Herrietako Gabonetako egitarau asko luzatu egiten dira urtailaren 6ra arte. Egun horretan Areatzako Bandak kontzertua emongo dau Igorren. Guztira 15 bat ekintza dira, gehienak umeentzat. Holan, hilaren 3an, Arantzazuko umeak eta Bediakoak Gasteizera joango dira plan desbardinakaz; Artean eta Zeberion, ipuin kontalariak egongo dira; Lemoan, umeentzako ikuskizuna... Barikuan, Erregeen Kabalgatak egongo dira. **5. orrialdea**



### ZEANURI

## Zeanuriko herria UEMARA atxikitu da barriro

UEMAko kide da barriro Zeanuri. Abenduaren 16an UEMAk onartu ebazan sei udalerriren eskaerak, tartean Zeanurikoa. Holan, 107 udalerreri dagoz UEMAn, guztien artean 342.000 biztanleko lurguneko euskalduna osotuten dabena. **7. orrialdea**



### IGORRE

## Onditz Iturbek marka ezarri dau Gasteizko Maratoi Erdian

Nieves Zarzak 1999an ezarritako 01:17:45eko marka gainditu, eta marka barria, 01:16:34, ezarri eban Onditz Iturbe atleta igorretarrak abenduaren 17an, Gasteizko Maratoi Erdian.

Urko Herran gasteiztarrak eta Onditz Iturbek irabazi eben lasterketea. Guztira 2.500 atleta baino gehiagok hartu eben parte. **11. orrialdea**



### ARRATIA, UBIDE

## 2024ko udal kontuak onartu ditue hainbat herritan

Arantzazun eta Zeanurin, abenduaren 26an onartu ziran 2024ko aurrekontuak; Diman, abenduaren 20an; Artean eta Lemoan 27an, eta Ubiden eta Igorren zemen-dian atera ziran aurrera behin-behineko udal kontuak. Arantzazun eta Ubiden aho batez onartu ziran, baina herri gehienetan udal gobernuaren kontuek kontrako botoa jaso eben oposizioan dagoan alderdiaren aldetik. Udal gehienek, igaz baino diru gehiago izango dabe aurten kudeatuteko. Bide eta auzuneen mantenimendua, energiaren eraginkortasuna eta eraikin publikoetan lanak egiteko, besteak beste gorde da dirua. **5., 6. eta 7. orrialdeak**



# Literatura txokoa

## LAS HEREDERAS

Amamak bere burua hil eta handik sei hilebetetara heredau daben etxeagaz zer egin ebazteko batzean dira amama zanaren etxean lau loba. Lehengusinarik zaharrena, Olivia, kardiologoa da eta etxeko kajoi guztietan dabil amamaren heriotzea azalduko dauan pistaren baten bila. Lisek etxea saldu gura dau, han krisi bat bizi izan ebalako aspaldi; bere ahizta Ericak, heredautako etxean erretiro espiritualak eta inguruetatik bedarrak batzeako urtenaldiak antolatu gura ditu, eta Olivieren ahiztea dan Norak, etxea droga biltegi moduan erabili gura dau.

Hortik abiatuta, Aixa de la Cruzek erraz irakurten dan nobela dibertigarria idatzi dau, baina aldi

berean, suizidioa, heriotzea, zoro-rotasuna edota bizitzan hartzean diran ebatzian gaineko gai potoloen hausnarketea egiten dauana (edo irakurleari eragiten deustana). Beste batzuen artean, errua, gizartearen moldatu ezin izatea eta errealitatea eta nahien arteko desbaidintasuna be dira nobela honek landuten dituan beste gai batzuk. Baita, jakina, biziteko hain beharrezkoak diran giza hartu-emonak be.


Personaiak oso ondo eregita dagoz, bene-benetakoak dira eta irakurlea identifikauta sentiduko da behin baino gehiagotan, personaien pentsamentu eta sentimenduakaz. Izan be, sano oingo sasoikoak dira eta oingo bizimodu egiten dabe.

Prosa arin eta argi batez, bizimodu horrek dakarzan kezka, aje eta ezinegonak, eta horren aurrean hartutako ebatzi desbaidinak, inoz ez perfektuak, erakusten deuskuz idazle bilbotarrak *Las herederas*en.

Fikzino oso errealista da, irakurlea, aldi berean, hunkitu eta astindu egingo dauana.

Aixa de la Cruz idazle ezaguna eta Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatua doktorea da. 2007an publikau eban bere lehen nobelea, *Cuando fuimos los mejores* eta harrezkerotik hainbat sari jaso ditu; tartean, gaztelerazko Euskadi Literatura Saria, 2020an *Cambiar de idea* liburuagaitik.

**Bea Azpiri**



**Aixa de la Cruz**

**Las herederas**

**Alfaguara, 2022**

**328 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

### Urtailearen 1etik 7ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

### Urtailearen 8tik 14ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

**22:00etatik 09:00etara**

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

### Urtailearen 15etik 21era

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

**22:00etatik 09:00etara**

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara**

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 600 74 63

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 01 85

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Arratiako Udalen

**Mankomunitatea** 94 631 17 17 /

*mankomunitatea.arratia@bizkaia.org*

### Gorbeialde Landa

#### Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79

**IKE** 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

**Euskotren** 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

**Areatzako Notarioria** 94 673 92 26

#### Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

#### Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

### Bizkaibus 94 612 55 55

**3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

### 3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

**Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio**

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduo.

### 3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

**Lemoa-Durango-Ermua-Eibar**

**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

**3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Ubideetik.** Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

### 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

**(autopistatik)**

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

### 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00;

11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\*Basauriraino bakarrik.

**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20.

\*Artearaino bakarrik.

**Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

**Ugaotik Artea.** Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

**Ugaotik Igorre.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriatik Zeberiora.** Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.


Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXXVIII). Kale berbakunea sustatu guran

#### GABONAK

- Hi Asier!! Zelan pasau **dozak** Gabonak? Opari asko euki **hinduzen** ala?
- Aurten ondo portau **nok** antza!! Egundo baino opari gehiago zabaldu **joazat** eta!!
- Hori seinale ona **dok**. Etxekoak pozik **dekozak** itxura baten!!
- Eta hi zelan ibili **haz?** Ikatza euki **dok** ala opariak euki **dozak?**
- Kar, kar, kar. Neu be ondo portau **nok** antza... Biharamona be galanta euki **ñoan** Natibitate egunean.
- Opari txarrena horixe!!

## ERETXIA

### Palestina: (ez) gure izenean

**H**erritarrok kalera urten gara behin eta barriro Palestinagaz alkartasuna adierazoteko. Herriaren nahia argi itxi dogu. Halanda be, instituzinoek gor eta tinko segiduten dabe sionismoari arnasea emoten. Palestinar herriak sufriduten dauan genozidioaren inguruko barriak (lar zaharrak diran barriak), etsipenaz eta inpotentziaz beteta entzuten doguz.

Berbaldi, manifa eta ekintza guztietan galdera bera botatzen da: "Herritarrok zer egin geinke?" Galdera honek daukan izaera bihozberak gure ikuspegi humanitarioa azalaratzen dau baina aldi berean daukagun erantzukizuna be ostenduten dau. Ez gara konziente (izan gura?) ze puntutaraino egoerearen erantzule garan. Agian ez dogu ikusi gura.

Herritarron eta instituzinoen arteko urruntasun honek agirian ipintzen dau gure sistemearen akatsak (trampak) eta gure erosotasuna (gure zurtasuna, gure pribilegioak, gure iparraldetasun globala) kokan ipintzen dau. Honek ezinegon itzela sortu arazoten deusku. Eta ezinegonaren oinarrian hurrengo galderea dago: "Benetan prest gagoz erosotasun horregaz apurtuteko eta erantzukizuna gure gain hartzeako?" Izan be, ikuspuntu dekolonialaz eta antierrazistaz jokatzen badogu, non kokatu beharko geunke geure burua?

Ayurveda filosofiak gizakiok begi bi eukitearen errazoia holan azaltzen dau: gizakiok begi bi daukaguz, begi bategaz kanpora begiratuteko eta beste begiagaz barrura. Begi bi daukaguz aldi berean kanpora eta barrura begiratu ahal izateko. Zer da orduan barruan daukaguna?

Sistema global honek iparraldean kokatu gaitu. Zapaldua eta bizirauten dauan herria garala harrotasunez (ez da gitxiagorako be) gainean daroagun moduan, konziente izan behar gara be gure identidadeak ertz asko daukazala eta mundu globalean gaur egun

### PALESTINAREKIKO ERANTZUKIZUNA PLATAFORMEA

pribilegioak daukaguzala. Hau onartzeak beste testuinguruetan bizi doguzan zapalkuntzak ez dauz ezabatzen. Kontzeptuak, egoerak edo identidadeak konplejuak dira eta ez dira pentsamolde binatar simpleen bidez azaltzen.

Honetaz jaubetza ezintasun horregaz amaitzeko lehen pausua izan daiteke. Berkokatze honek ez gaitu bakarrik erantzule bihurtzen,

aldaketarako eragile posible be bihurtzen gaitualako. Instituzinoak (udaletxeak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritza) herriaren ordezkari diran neurrian, euren ateak jo (lurrera bota arte, beharrezkoa izatekotan) beharko doguz, eta euskal jarkerea eta joerak aldatzea exijidu, gaur egun daukagun konplizidatea apurtzeko.

Izan be gaur egun hainbat euskal erakundek palestinar herriak sufriduten dauan genozidioaren erantzule zuzenak dira. Esan-guratsuenetako bat C.A.F. (Beasain) enpresa da (enpresearen %3a Eusko Jaurlaritzeari jagoko). 2019tik Jerusalemeko tranbia kudeatu eta "hedatze lanak" egiten dauzana. Ekialdeko Jerusalemen dagozan legez kanpoko asentamentuetara tranbia helduarazoz, gune okupatua eta mendebaldeko Jerusalem lotuz, kolonoiei euren betebeharra (okupazioa eta genozidioa) errazten deutse. Okupazioaren eta genozidioaren partaide (eta onuragarri) dan arren, aurtan bere presidenteak, Andres Arizkorretak, Gipuzkoako (palestinar odolez zikindutako) Urrezko Domina jasoko dau Foru Aldundiaren eskutik.

Badakigu be euskal enpresa askok armagintzan diharduela (Eusko Jaurlaritzearen dirulaguntzakaz): Miñanoko Adernnovak, Barakaldoko ITPk, Andoaingo Sapak edota Getxoko Sener-ek, hain zuzen be.

Ez ete da hau ondoeza sorrarazoten deuskuna? Izan be:

Gure izenean herri baten txikizina gertatzen dabil.

Gure izenean genozidio bat gertatzen dabil.

Gure izenean Eusko Jaurlaritzearen konplizidateari esker, euskal foru aldundien laguntzeari esker eta euskal enpresen bultzadeari esker genozidio bat gertatzen dabil.

Gure izenean euskal konplizidateagaz, euskal laguntzeagaz eta euskal bultzadeagaz genozidio bat gertatzen dabil.

Beraz, boikota bai, pribilegioak erre eta erantzukizuna gure gain hartu be bai.

Gora Palestina askea, ibaitik itsasora.





## LUMATUTEN



## URTZI BARRENETXEA

## Bakterioena da garaipena

**A**zken aldian bakterioen inguruan daukagun ikuspegi aldatuten dabil. Oin arte gaixotasunen iturri lez ikusten bagenduzan be, egungo ikerketek erakutsi deuskue ezinbestekoak dirala geure bizitzarako; garan modukoak izateko, esango neuke. Esaterako, sabelaren eta burmuinaren arteko loturearen garrantziak konturatuten gabizan sasoi honetan, ikusi dogu bakterioak hestee-tako ezinbesteko osagaiak dirala.

Pelikulako txarrak ez dirala-ta, bakterioenganako diskursoa aldatuten gabiz, bai eta ikusi be bestelako ekarpenak egiten dabezala gure bizimodua hobetuteko. Gaurkoan, munduko izaki txiki-ek egin ahal deuskuen "mese-de" baten inguruan idatzi gura dot; izan be, plastikozko zaborraren arazoa konponduko ei deuskue.

Kontu horri aurre egiteko modua be, beti lez, teiltatutik hasi dogu. Holan, plastiko produktioaren azterketa kritikoa egin beharrean, hondakinontzako

konponbideak topetan hasi gara. Horretarako, Lemoakoa moduko erraustegietan plastiko erretea konponbide nahikoa ez dalakoan, bestelako urtenbide bila, uniberso bakterianora jo dogu. Antza, genetikoki aldatutako bakterio batzuk, plastiko "jaten" hastea lortu dabe. Momentuz, laborategiko probetan.

Gure ikuspegi antropozentriko-gaz, Lur planetan agertu garan atzenengoak izan arren, oin arte egondako guztia gure gustura kontroletako gai garala pentsetan dogu. Itsututa, ez gara konturatuten bakterioek hiru mila milioi urte baino gehiago darozala planeta honetan, eta guk baino askoz hobeto ezetuten dabezala ingurune-ko baldintzen mehatxu eta aukerak.

Halan izanda, pentsau bakterio horreekaz martxan ipinitako esperimuetan kontuan hartu bako faktoreren bat dagoala, eta, dana dalakoagaitik, bakterioak kontroletik kanpo hasten dirala plastiko jaten. Ez dakit; irudikatu esku artean daukagun telefonotua atzamarretan behera desegiten txapapotea lez; autoko osagai sintetiko bat apurtutea gidatzen zabizela... Zerk ez dauka gaur egun plastikozko zeozer?

Oindino esperimutu hutsak dira, baina baleiteke munduko txokoren bateko zabortegiren baten plastiko industrial jateko gaitasuna daukan mutazino bakterioaren bat garatuten ibiltea oingandik. Duda barik, gu desagertu ostean bakterioek hemen segiduko dabe.

## ZERTZEAN



## KARLOS ARETXABALETA

Z (II)

**H**irigunetik gertuko kale batera heldu denean, hogeigarren zenbakiaren aurrean paratu da gure protagonista, eta alde bietara begiratu ostean, txirrina jo du, eta pauso ziurrez aurrera egin du eraikinaren barruan. Hirugarren pisuko atarira heldu denerako, zain du idazkari tankerako andre bat. Horrek adeitsu agurtu du, barrura sartzeko keinua eginez, eta jaso nahi duen tratamenduari buruz galdegin dio. Jose Luisek, jaka kendu eta kakoan eseki du, eta bai, abegikor, gaurkoan "kaña" sar die-zaiola eskatu dio andreari.

Hala, kontsultan barrena abiatu dira, eta emakumeak beti erabiltzen duten gelan sartu beharrean, egindako eskariarekin bat letorkeen beste gela bat opatu dio, eta honek baietz. Bat-batean, emakumeak ate markoan Z hizkia duen gela zabaldu eta agerian gelditu da Jose Luisen gaurko terapia ohikoa baino kartsuagoa izango dela.

Aurrez aurre, argi ahulez jantzitako gela iluna, non esku-ohi handi batek betetzen duen zentroa. Aldamenean, mesanotxe apala "jostailuz" horniturik; larrua eta burdina bertan nagusi direlarik, bederen; gehienak mina eragiteko sortuak.

Ostikada arin eta bortitz baten bidez, emakumeak barrurantz bultzatu du Jose Luis, eta atea danbateko batez itxi egin du. Derrepentean, mozorroa erantzi egin du andreak, eta bere benetako aurpegia erakutsi dio enpresariari; latex mozorroa darabilen dominatrixa, alegia.

Hurrengo bi orduetan oihiak, erreguak eta intziriak besterik ez dira entzun gela ilun horretan. Haatik, ilargiaren alderdi ilunean gertatu ohi bezala, Z gelan jazotakoa ez dago ikusterik, imaginatzea baizik.

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**H**arri-orri-ar, herria sortzen da eskutik helduta elkar.

Mingain zein fraka gorri, irribarrez eta umorez hamaika aldarri.

Txikien ilusio handia da edonorentzat gida: "Izena duena, bada".

Maridomingi, Olentzero eta lagun oro, Ubide berpizten jarrai dezagun urtero.

**Ubideko herritarrek**



**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91  
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)

**agoa**  
hagin klinika

Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Ikasgaitza Zerbaita 101  
R.P.S. 21/06



ARRATIA, ZEBERIO

## Gabonetako ekintza kulturelek jarraituko dabe hile hasikeran

### Erredakzioa

Gurean Gabonak ez dira amaitu-ten urtailaren 6a pasau arte eta udalek eta alkarteek antolatutako kultura eta aisialdi ekintzek urteko lehen astea hartuko dabe. Batez be oporretan dagozan umeentzako urtekerak eta ikuskizunak dira. Erregenetako bezperan, urtailak 5, kabalgatak egongo dira Areatzan, Bedian eta Igorren.

Holan, umeentzako urtekerai jagokienean, Arantzazuko umeak Gasteizera joango dira patinatzer hilen 3an. Bediakoak be joango dira Gasteizera egun berean, baina honeek batez be saltuak egitera, City Jump-en. Artean eta Zeberion ipuin kontalariak egongo dira egun horretan eta Lemoan, umeentzako antzerkia.

Kontzertuak be egongo dira urteko lehen astean. Urtilaren 6an, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua egongo da Igorren. Bezpera gauean, Karabie gaztetxean egongo da jantzan egiteko musikea.

### ARANTZAZU

#### Urtailak 3, eguaztena

Arantzazuko ludotekearen urteke-rea Gasteizera patinatzer, LH3-LH6 bitartekoentzat.

### AREATZA

#### Urtailak 5, barikua

18:00etan, Erregenetako Kabalgatea Karpon hasita, eguraldi txarra bada, plazan.

### ARTEA

#### Urtailak 3, eguaztena

18:00etan, Ameli eta Xirikituen jostunek ipuin kontalaria, *Basoko sekretuak* Kultur Etxean.

### BEDIA

#### Urtailak 3, eguaztena

16:00etan, 8 urtetik gorakoentzat, Gasteizko City Jumpera urtekera.

17:00etatik 19:00etara, City Jump eta askaria: pizza, patatak, txutxeak eta tartea.

#### Urtailak 5, barikua

18:30ean, Erregeen Kabalgatea

frontoian.

### IGORRE

#### Urtailak 2, martitzena

20:00etan, zinea, *Vidas pasadas* filma Lasarte Aretan.

#### Urtailak 3, eguaztena

12:00etan, inaugurazioa, pilotuak Pump Track-ean.

#### Urtailak 4, eguena

11:00etan, *Kutxak askatu* tailerra Lasarte Aretan.

#### Urtailak 5, barikua

18:00etan, Erregenetako Kabalgatea helduko da Lasarte Aretora. Gero Erregeak Kultur Etxean egongo dira gutunak hartzeako.

#### Urtailak 6, zapatua

19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua. Atzoko eta gaurko zinema. Aritz Labrador Odriozolaren zuzendaritzapean Lasarte Aretan.

#### Urtailak 7, domekea

17:00etan, zinea, *Nobitaren dinosauro berria*; 19:30ean, *La Navidad en sus manos* Lasarte Aretan.

### LEMOA

#### Urtailak 2, martitzena

19:00etan, Xabier Madariaga Palestinare zapalkuntzearen lekuko Karabie Gaztetxean.

#### Urtailak 3, eguaztena

18:00etan, *Urpekotzi misterio-tsua* umeentzako ikuskizuna Karabie Gaztetxean.

#### Urtailak 5, barikua

23:00etan, Stankeik-en kontzertua Karabie Gaztetxean.

### ZEBERIO

#### Urtailak 3, eguaztena

17:00etan, ipuin kontalaria udale-tereko 2. solairuko gelan.

#### Urtailak 5, barikua

11:00etatik 14:30era, Gabonetako Umeen Parkea plazan.



## Bardintasunean eta euskeran indar handiago egiteko aurrekontuak onartu ditu Dimak

### EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJren

kontrakoakaz, abenduaren 20an onartu ziran behin-behinean Diman, 2024ko udal aurrekontuak. Guztira 1.930.741 euro kudeatuko ditu Udalak, aurreko urtean baino ia 108.000 euro gehiago.



Aurrekontuetako plenoa.

### Erredakzioa

Bardintasuna, euskera eta jaiak bultzatu gura ditu Dimako Udal gobernua eta horretarako diru partidak handitu egin dira. Bardintasunak eta euskereak diru partida bina daukie. "Saiatzen gara dagozan planak aurrera erateko baliabideak ipinten. Bardintasunean 10.000 euro egozan lehen eta oin 25.000 euro egongo dira partida biak batuta, eta euskeran lehen egon ziran 14.000 eta oin partida bien artean 16.000 eurora

igon dogu" azaldu eutsien BEGITURI aurrekontuak onartu ostean EH Bil-duko zinegotziek.

Auzo batzarretan auzoetako jaietarako diru gehiago eskatu eben dimoztarrek eta jaietako diru partidea be igon da, baita alkarteentzako dirulaguntzak be.

### Saneamentua, frontoia eta igongailua

Diru partida horreen igoerak esanguratsuak diran arren, diru partidarik handienak urigintzakoak dira. Handiena, 206.000 euro, sanea-

mentuak daroa, eta Zamakolan ur-arazketa sistemea ipinteko izango da. Frontoiaren egokitzapena egiteko 177.606 euro dagoz.

Irisgarritasuna hobetuteko asmoa be islatzen dabe aurrekontu honeek. Izan be, eskolako kamarara igoteko igongailua ipini gura da. "Aurreko urtean ez egoan horretarako diru partidarik eta aurten 54.000 eurokoa dago". Holan, EH Bilduk bere aurreko legegintzaldian eukan proiektua atera gura dau aurrera. "Gure aurreko legegintzaldian, amaieran horretarako dirulaguntza bat be euki genduan, baina gobernu barriak ez eban ezinbestekotzat jo eta bertan behera geratu ziran dirulaguntza eta azpiegitura bera. Aurten hori berreskuratzea pentsau dogu ze badarogaz urteak, kamara itzela euki arren, erabilera baldintzatuta daukana".

### EAJ-PNVren ezezko botoa

Dimako EAJ udal taldeak, Udal gobernuak aurkeztutako 2024 urterako aurrekontuari kontrako botoa emon eutsan, baina prest agertu zan proposamenari aldaketak egiteko lan saioetan parte hartzeako. Izan be, behin-behineko onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikau eta gero, 15 laneguneko epea zabaltzen da, alegazinoak, emendakinak eta abar sartzeako.

Jeltzaleen ustez, 2024ko kontuek hiru erronkei egin behar deutsee aurre: frontoiko eraldaketea, herriko ondare materiala eta inmateriala jagotea eta auzoak jagotea. Frontoiaren eraldaketa osoa proposatuten dabe, erabilera gehiagotarako kirol gun barrizatuta, hain zuzen be. Eta horretarako, BFAren 376.119,76 euroko dirulaguntza onartutea eta 600.000 euroko kreditua eskatzea 25 edo 30 urtetan ordaintzeko proponiduten dabe.

ARANTZAZU

## Kultura indartzeko aurrekontuak onartu dira

### Erredakzioa

Aho batez onartu ziran Arantzazun, 2024ko udal kontuak, abenduaren 26ko osoko batzarrean. Guztira 611.000 euro kudeatu beharko ditu Udalak aurten, aurreko urtean baino 48.667 euro gehiago.

Hori dala-ta, diru partida gehienak mantentidu egin dira eta beste batzuk, handitu egin dira: kale eta lorategien mantenimeturakoa, gasa eta energiarena, udalekuetarako dagoan dirua,

jaietarakoa eta kultur ekintzetarakoa, berbarakoa. Holan, 2024an, jaietarako 30.000 euro dagoz, eta kultur ekintzetarako beste 12.000 euro.

Irisgarritasuna hobetuteko, Ibarretako bidea espaloi bihurtuko da eta horretarako 30.000 euroko diru partidea dago. Auzoak konponduteko, beste 17.000 euro. Bidegorriari jagokonean, hirugarren fasea amaitu barik dago, eta 2024ko urtail eta zezeilean fase hau amaitutea espero da, 2023ko aurrekontuetako dirua-

gaz. Bidegorria dala-ta lur jaubeei kalte-ordaina emoteko 20.000 euroko diru partidea zabaldu da 2024ko kontuetan.

**Jubiladuen lokala udaletxera**  
2024an, Arantzazuko Udalak, jubiladuen lokala eta artxiboa lekuz aldatutea gura dau. Jubiladuak, udaletxe azpiko lokalera mobiduko dira. Oin hor artxiboa dago eta artxiboa bake epaitegira erateko asmoa dago. Honetarako, jubiladuen lokala udaletxera ekarteko, 14.000 euro dagoz udal kontuetan.

Gimnasiaorako makinak erosteko 12.000 euro dagoz eta plazan panel elektronikoko bat ipinteko 14.000.



## ZEANURI

## Urigintza arlokoak dira herritarrek adierazotako kezka nagusiak

Zeanuriko 2024ko aurrekontuak egiteko auzuneetako batzarretan, saneamentua, bideen konponketa eta urigintzako arloko kezkak izan ziran herritarrek gehien adierazo ebezanak, eta inbersino eta konponketa horreek dira abenduaren 22an, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz, onartutako 2024rako udal kontuen ardatza.

### Erredakzioa

Aurten Udal gobernuak "ahalegin berezia" egin dauala aurrekontuak epe barruan onartutako dino Nahia Urrutxua Zeanuriko alkateak.

Kontu horreen arabera, guztira, 2.481.196 euro kudeatuko ditu Zeanurik aurten; igaz baino 148.414 euro gitxiago. Dana dala, hainbat proiektutarako dirulaguntzak urtailan ateraten dira eta kontuak onartutakoan baino dirulaguntza gehiago egongo dirala uste dau alkateak. 220.000 euroko mailegua be eskatuko dabe.

Proiekturik handiena, aurreko legegintzaldian hasitako frontoiko obrak dira. Batez be teilatua konpondu eta energetikoki efiziente bihurtutako lanak egingo dira aurten. Horretarako, 694.000 euro dagoz. Saneamentuari jagokonean, Ur Partzuergoagaz hitzarmena dauka Zeanurik. Momentu honetan Elizondoko saneamentua dabiz bideratzen eta horretarako diru partidea dago. Uri-bezelaiko plazearen berrantolaketa eta saneamentuko obrak be hasita dagoz, 2023ko aurrekontuetako diruagaz egiten dabizanak.

Putzu septikoak egiteko dirula-

guntza bat be sortu dabe. "Saneamentuaren egoera kezkagarria da herrian eta badakigu auzune asko dagozala eta etxe isolatu asko, nora sanementua ez dan heltzean eta putzu septikoak behar dituenak. Oin arte, horreen eraikuntza Udalak hartzean eban bere gain, baina ikusten genduan oso motel joiala eta diru partida bat dirulaguntza bategaz sortu dogu joango dana ordenantza bategaz lotuta. Holan, jentek eskatu ahal izango dau dirulaguntzea euren putzua egiteko. Helburua da horri astindu bat emotea eta egitea".



Bideei jagokienean, Gospelar, Sanlontxo eta Beobideko bideak konpondutako dirua dago.

Larreen mantenimenturako diru partidea be igon da. Izan be, igaz Foru Aldunditik ez zan dirurik egon eta aurten, aurreko urteetan emoten ebanaren erdia dago aurreikusita.

### Kultura, euskerea eta bardintasuna

Kultura alkarteei lagundutako diru partidea 50.000 eurotik 55.000 eurora pasau da. Izan be, "alkartee egiten daben lana herrian txalotzeko da eta beharizan handia dago".

Euskereari jagokonean, Korrikarako diru partida bat dago; UEMARako beste bat eta euskera eskolatarako beste bat. Atzenengo hau, ordenantza bateri lotuta dago. "Euskera ikastaroen gaineko ordenantzea sortu dogu, herrian momentu honetan talde bi daukaguz A1 eta B1 mailako taldeak, eta ordenantzea egin dogu diruz laguntzeko talde horreetara apuntetan dan jentean".

Bardintasunerako diru partidea jeitsi egin da aurten, Bardintasun Plana eginda eta ordainduta dagoalako. 2024ko aurrekontuetan Bardintasunerako 5.000 euro dagoz.

## ARRATIA

## Gazte ekintzaileak saritu ditu Arratiako Udalen Mankomunitateak

### Erredakzioa

Ana Aldape, Alboan Fisioterapia eta Osteopatia zentroko susta-

tzaileak; Mayela Tamariz Lanbrea-be okindegikoak; Aitziber Corvo eta Amaia Urueña Zazpi Haizetara dendakoek; Iñaki Mardaras Aho-

zabal, Logopedia, Fisioterapia eta Psikologia zentro multidiziplinarrekoak, eta Izaro Zurinaga, Sasoi Fisioterapiakoak jaso dabe aurtengo Arratiako Gazte Ekintzaileei Saria. Sari banaketea abenduaren 20an izan zan, Zulaibarren, eta bertan egon ziran Aitor Sorriketa Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea eta Iñaki Barrenetxea.

Saria dirulaguntza eta laguntza prozesu baten parte hartzea da, gazteek sortutako enpresak finkatu daitezkan Arratian. Arratiako Udalen Mankomunitateak emoten ditu sariok, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gazteria programatik jasotako diruagaz.



## ARRATIA, UBIDE

## Ilgoran Jabekuntza Eskolako andra migratzaileentzako tailerra hasiko da hilaren 13an

### Erredakzioa

Lemoako Kulturgunean izango da 16:00etatik 19:00etara, hiru zapatutan, Johana Muñozen eskutik. Hiru saio izango ditu, urtailaren 13, 20 eta zezeilaren 3an eta Arratian bizi diran andra migratzaileen artean sareak egitea

dauka helburu.

Partaideek hainbat gai landuko ditue; esate baterako, migratzaileentzako prozesuak, sufridutako indarke-riak edo Arratian bizimodua egiteko eskura dituen baliabideak. Andron jatorrizko lurraldeetako janari tipikoak be partekatuko ditue parte-hartzaileek.



## ARANTZAZU

## Desfibrilagailua ipini dabe liburutegiko sarreran

### Erredakzioa

Abenduaren 18an, Arantzazuko Udalak, desfibrilagailua ipini eban liburutegiko sarreran, herritarren eskura, operatibo egon daiten egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez. Eta desfibrilagailuaren erabilerearen gaineko formakuntza saio bi emon ebazan, Bexen Cardio enpresek, goizean bat eta arrastian beste bat. Goizean 7 eta arrastian 10 boluntariok jaso eben formakuntza "gertatu daitezkan gorabeheretan" azkar eta modu koordinaduan erantzuten ikasteko.

Ekimen soziosanitario hau, parte-hartzailea eta komunitariotzat jota, jentearen parte-hartzea azpimarratu dau Udalak. "Arantzazu kardio-babesteko gakoak personak

izango gara. Horregaitik Udalak desfibriladorearen erabilera eta bihotz-biriketako bizkortzean oinarritutako debaldeko formazioak ipini ditu herritar guztien eskura".

### Desfibrilagailuaren erabilera

Desfibrilagailuaren erabilera jarraibideak azalduten dauzan triptikoa be heldu arazo eban Udalak etxeetara. Erabilera erraza eta intuitiboa dala esaten da bertan. Hiru pausu dira. Lehengo, desfibrilagailua biztuteko, tapea zabaldu eta jarraibideak bete; bigarren pausua, parteen boltsea zabaldu eta parteen biktimatearen bular biluzian ipintea litzateke eta hirugarren pausua, aparatua deskarga aholkatzen badau, biktimatea ikutu barik, deskarga botoiari sakatzea da.





ZEANURI

## Zeanuri UEMAko kide da barriro

### Erredakzioa

Abenduaren 16an, onartu ebazan Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Azkoitia, Berrobi, Hondarribia, Lezo, Mendexa eta Zeanuriren eskaerak UEMAko kide izateko. Holan, oin 107 udalerri dagoz mankomunitatean, guztien artean 342.000 biztanleko lurgune euskalduna osotuz. Gure eremuko sei herri dagoz UEMA: Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeanuri.

Batzarkide barriak onartzeko batzar nagusia, Orion egin zan. 2023an egindakoaren balantzea aztertu eta 2024rako egitasmo nagusiak be onartu ziran. Arratiatik, Maider Gandarias, Zeanurikoa; Iñigo Iruarrizaga, Areatzakoa; Ibon Ozerin Igorrekoa eta Haizea Ziarresta Dimakoa egon ziran Arraunetxen egindako batzarrean.

Ekitaldian, Maider Gandarias zi-

negotziak aurkeztu eutsen UEMAko beste kideei Zeanuri, eta herriaren asmoen barri be emon eutsen, bertso itxurako aurkezpenaren bitartez:

"Zeanuri, bere txikian handi, Gorbeia magalean, lur eremu zabalean 1.200 biztanle, haur, gazte, heldu, ume... euskararen arnagune... Gorbeia, Lekanda, Atxular... kondaira, ipuin eta ele zahar... zaharra bezain berria da gure joan-etorria. Etorri eta joan joan eta etorri, izan ginen UEMA, eta joan ziren... eta bagatoz, eta gelditzeko etorri gara! Gu ere bagara! Bagara euskara! Eskerrik asko UEMA!"



ARRATIA

## Mendi martxea, gazte agerraldia eta bertso-saioa antolatu ditu Ernaik

### Erredakzioa

Preso, igeslari eta deportatuak gogoan izateko, Arratiako Ernaik egun osoko egitaraua antolatu dau urtailaren 6rako.

Gorbeia mendi martxegaz hasiko dabe eguna Ernaiko gazteek. Banderola eta aldarriak hartuta, 09:00etan batuko dira Areatzan, Iturrimorrotik Gorbeia

igoteko. Bajatukeran kopaua jan eta 14:00etan agerraldia egingo dabe Areatzako plazan. Bertso-saioa, barriz, Igorren izango da, 18:00etan, Axular Herriko Tabernan. Aritz Katarain, Janire Arrizabalaga eta Aissa Intxausti bertsolariak botako dabez bertsoak.

Urtailaren 13ko Sareren Bilboko mobilizazioan parte hartzeako deialdia be egingo dau Arratiako Ernaik.



LEMOA

## Lemoako Udalak inozko aurrekonturik handiena onartu dau 2024 urterako

Abenduaren 27an onartu ziran Lemoan, 2024ko aurrekontuak, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz. Aurrekontuon arabera, Udalak 5.121.900 euro kudeatuko ditu aurten, aurreko urtean baino %7,67 gehiago.

### Erredakzioa

Udal gobernuaren arabera, aurrekontuok herritarrek egindako ekarpen ugari jasoten ditue, baita 2023-2027 Gobernu Programan jasoten diran konpromisoen zati bat be. Tallerretako kotxe-tokien eraikineko erabilera anitzeko kultura-espazioa, 25.000 euroko diru partidea daukana, edo Elizondoko frontoia, 10.000 eurokoa, dira Udalak estrategikotzak jo dituan 2024ko proiektu batzuk. Izan be, Udal gobernuaren eretxian, "proiektu horreek sozializazio prozesuak ekarriko ditue".

Mantenimentuko zerbitzuek deroz diru partidarik handienak. Besteak beste, lorategiak mantendutako kontraturako 252.500 euro dagoz eta kontratu soziokul-

turaletarako 243.000 euro, berbarako. Eskolan leihok eta atearalduteko 120.000 euro dagoz.

Kirol zerbitzuen egokitzapena, txirindularitza erabilerrako espazio barri bat, patio inklusibo bat sortzea, euskera bultzatzeko programak eta kultur programazioa, baita Arratiako Musika Eskolari ekarpena egiteko diru partidak aurrekusten dira. Dirua be badago

energia argiztapena eraginkorrago egiteko, komun publikoetarako edo auto elektrikoentzako kargagailuak ipinteko.

Merkatarien alkarteari bideratutako dirua bikoztu egin da eta Lemoako Gazteentzako Plana egiteko asmoa dago, udalerriko gazteen beharrezan erantzun integrala emoteko.

### EH Bilduk ezezko botoa

Aurrekontuok ez zirala lemoaztar guztientzakoak eretxita, EH Bilduk ezezko botoa emon eban. "Uste dogu aurrekontuek herritarren zati batentzat bakarrik jasoten dituela proiektuak" esan eban Bilduko ordezkariak. "Zuen garaia da, gure proiektuak aldatu egin dira, ez dira bardinak, horregaitik emon dogu kontrako botoa" gehitu eban.



ARTEA

## Hiri Antolamenturako Plan Orokorra (HAPO) landuko dau Arteak 2024an

### Erredakzioa

2024ko aurrekontuetako diru partidarik handienetakoa eroango dau plan orokorrak. Udal aurrekontuok abenduaren 27an onartu ziran, EAJren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz. Kontuon arabera, 1.430.179 euro kudeatuko ditu Udalak.

Plan orokorrak gainera, horretarako 87.000 euro dagoz, 2024rako kontuetan pisu handia be hartzean dabez auzuneek eta bideek. Auzuneetarako 60.000 euroko diru partidea dago, baina dirulaguntzak be izango dituala dino Alberto Intxaurreaga Arteako alkateak: "Beti egiten doguz gauzak segun zelango diru iturriak ikusten doguzan, ze Arteak daukan kapazidade finantzarioa ez da oso handia. Beti gabiz dirulaguntzak topetan non sartu eta ze proiekturi ekiteko". Basogintzan, mendiko pistak konpondutako beste 50.000 euro dagoz.

Kultura, jaiak eta euskerarako 2023an baino diru gehiago dago. Kultura ekipamentuari arreta berezia eskainiko deutso Arteak

2024an. "Kulturearen aldetik, ekipamentua atonduten joango gara: gelak eta abar. Dirulaguntza bat eskatu da Euskara eta Kultura departamentura, 5.000 baino biztanle gitxiagoko herrietarako dagoana".

### Musiktopa

Folk musikea eta euskal tradizioak ardatz izango dituan Musiktopa museoko lanak be aurrera doaz. "Musiktopa proiekturako beste diru iturri bi lortu doguz. Proiekturako 700.000 euroko dirulaguntzea lortu genduan Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saitetik, eta beste 200.000 euro Leader, Eusko Jaurlaritzako programatik. Baina orduan, materialen prezioek igoera ikaragarria izan eban, eta zati bat atera genduan, Arratia Musika deitzean dana, eta proiektu horretarako beste diru iturri bat lortu dogu, amaitu ahal izateko. Pasauta dago udal bilkuratik eta utailan egingo da adjudikazioa. Horregaz desadostasuna egon da aurrekontuetan. Guk 40.000 euro ipini genduzan

hori prozesuori martxan ipinteko" dino Intxaurreagak.

### EH Bilduren ezezko botoa

2024ko aurrekontuen Udal gobernuaren proposamenak, EH Bilduk auzoetan jaso eta aurkeztutako emendakin batzuk jaso, eta beste batzuk aurrerantzean aztertzen hasteko borondatea adierazo eban jeltzaleek. Txiki Txoko eta liburutegiaren berrantolaketea; bide konponketa eta lursail garbiketarako egitea; bizikidetzaren plana; euskerearen erabilerrako konzientiaziorako ekintza plana eta irisgarritasun planagaz jarraitzea izan ziran horreetako batzuk. Baina Musiktopa proiektuak desadostasun sakona sortzean dau eta hori izan zan EH Bilduren errazoa ezezko botoa emoteko. "Ardura eta zalantza handiak daukaguz eskainiko danagaz eta mantenimentu gastuakaz. Aurreko Ekomuseoaren esperientziatik jakin badakigu ze koste eta zailtasun dituan herriko aurrekontuan. Aurten 40.000 euro martxan hasteko. Eta gero?" azaldu eutsan BEGURI Izaskun Betzuen EH Bilduko zinegotziak.



AMAGOIA VILLANUEVA

# Gizarte zein erakundeen aldetik indarkeria matxisteari erantzuna suspertu egin da 2023an

Indarkeria matxisteari erantzuteko gizartearen solidaritatea eta baliabideen sendotasuna nabarmendu dauz Amagoia Villanueva Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Teknikariak, 2023ko balantzearen gainean galdetutakoan. Alkarlan handia egin da gizarte eragile eta erakundeen artean, indarkeriari aurre egiteko, hainbat protokoloen bitartez: batzuk sortu, beste batzuk abiatu eta beste batzuk barrizuteko prozesuak abiatu dira amaitu barri dan urtean.

## Erredakzioa

### Indarkeria matxistea dala-ta, 2023ak ze balantze itxi dau Arratian?

Bailara erreferentzia potentea da, indarkeria bizi izan edo gaur egun indarkeria egoera bizi daben andrentzat eta euren seme-alabentzat. Bereiztuko neuke indarkeriari aurre egiteko 2023an ipini diran dispositibo eta protokoloen areagotasuna; honek adierazoten dautu suspertze bat gizarte mailan eta mobimentu feministan, batez be. Izan be, ildo politikoak aparte itxi barik, erantzukizun maila handia erakusten dabe dispositibo eta protokoloak. Hainbat udalerrik euren protokoloak abiatu dabez 2023an, Lemoak eta Areatzak, esate baterako. Udalerri horreek euren prozesu konkretuak egin ditue, euren ibilbideakaz.

### Herri batzuetan, gazteek abiatu edo gidatu ditue protokoloak, ezta?

Areatzan, esate baterako, protokoloen lanketea gazteakaz aurreikusita egoan. Preminearen detekzioa nire epea baino lehenagokoa da, baina nik gazterien aldetik eta horri erantzuna emoteko beharizana Udalaren aldetik jaso dot. Eta horri erantzuteko herrigintzatik abiatu behar da prozesua.

Lemoak be hasi da lehenengo pausuak egiten. Herritarren bardintasun guneak marketan dau bidea. Gune hori, sortu dan egitura bat



da, kontseilu bat, gizarte eragile gehiengoaren ordezkariak dituana. Udalekoa izan arren, herrigintzan oinarritzen da guztiz.

Horrezaz gainera, udan, lan handia egin da jai eremuetan indarkeria matxistea prebeniduteko edo gertatu ezker, erantzuteko, AUM mailan, eta herrietako talde feministen aldetik. Protokoloen preminak batez be, erasoei erantzuteko gaitasun horri, -edo ez-gaitasun horri- erantzuna emoteko eskatu

diran gauzak dira-ta. Orokorrean, bailarako erantzun maila oso positiboa izan da. Dispositiboak ipinten dabez enpresa dinamizatzaileak, eta erreferentziako telefonoak bateratuak izatea Arratia mailan, oso interesgarritzat jotzen da, udaldian herri desbardinetan dagoan jaietako segurtasuna alkar lotzean ditualako; hau da, dispositibo horreek bateratzen ditue herrietako segurtasuna. Dana dala, egia da dispositiboak eskatzen dabez

ahalegin ekonomikoa eta giza baliabideek, igual ez dabela oso balorapen positiboa izango; oso arrotzak diralako igual enpresa edo plataformak.

Udal guztietan eta herri mailan be herri guztietan, sensazioa da protokolo horreek garatu behar dirala. Udalerri bakotzak bere eritmoa dauka, formakuntza eta baliabide desbardinak ditu-eta. Igoerre baten adibidez, Orratzak talde feministea erreferentzia moduan

hartuta, badauka aurreformakuntza bat eginda, eta nahiko lan ildo kohesionau bat. Hori dala-ta, modu autonomoan bideratutako protokoloak izan dira Igorrekoak, herri partaideakaz edo mobimentu feministearen ordezkariakaz aurrera eroan diranak. Baina baita be egon dira euskarri profesionala, telefono bateratuak eta arreta puntual profesionala, eskatzen eban gertaera bat gertatu ezker, euren gaitasuna joteko.

Hori, udalen konpromiso politiko eta baliabideen bitartez izan da. AUMeko herri guztietan izan da holan. Zeanuri batek, esate baterako, herrigintzatik antolatu dau erasoei aurre egiteko dispositiboa, eta dispositibo horren ordutegitik kanpo, dana mantendu da erreferentziako telefono baten bidez, eta erantzun gaitasuna mantendu da holan, nahiz eta gero kanal generaletara bideratu.

Igorrek eta Zeanurik beraz, euki dabe gaitasun hori, eta Dimak be bai. Beste herri batzuek barriz, edo euren ahalmenaren arabera edo euren formakuntza mailaren arabera, guztiz delegau dabez dispositiboak enpresa pribaduetan edo kontratazioetan. Gabezia hori, batez be, formakuntza gabezia izaten da. Aurtengo udan ikusi da formakuntza edo lanketa bat egin behar dala, udal dispositibo horreekazko erantzun bateratu edo herri herrikoia izango dan ildo definituteko.

Zentzu horretan irakurketea posi-

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Bilaka daga jartze* *Bilaka daga proiektu*

-Salmenen zein aldatuian  
Luzak (erretiketa, landak, basak...)  
Etebiziak (jauk, baserri, etxak...)  
Garaioak  
Lokal komertzialak  
Pabiloiak...  
-Balonazkoak

Irakin berak erakitzeko instalazioak  
Arkitekto-proiektuak

-Sare diseinua  
-CEE eta IIE-ak  
-Hirigintza ahoikularitza  
-Negozioak irakitzeko kudeaketa

**arratia**  
INMOBILIARIA

Udalak: Agirre 25, 48140 IGORRE  
Bilaka: 48 03 01 94 - 48 03 01 95  
Bilaka: 48 03 01 96 - 48 03 01 97  
Bilaka: 48 03 01 98 - 48 03 01 99  
Bilaka: 48 03 02 00 - 48 03 02 01

**belagorri**

mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elkagai biologikoak  
zelakoentzat elkagaiak  
estetiziana

Zamako, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**Olaetxe**  
OPTICA OPTICA

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**ASESORIA Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com

**Kili-Kili**  
Amoia eta Puztuturua

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 63 61

**begitu**  
eus



tiboa da, bailara mailan.

### Jai guztietan eta jaialdi batzuetan be egon dira eraso matxisten kontrako protokoloak, ezta?

Bai, herriko jai guztietan. Jaialdiei jagokienean, Dimetalen 23:00etatik 04:00retara egon zan dispositibo profesionala, eta arrastian be bai, sensibilizazioa eta difusioa emoteko neurri edo babes aukera horri. Garagarilaren 1ean ipini eban Dimak dispositiboa jaietan, eta horri lotuta, Dimetalen ordu-tegi bardina egon zan. Beste jaialdietan, nik kudeatuta behintzat, ez zan egon.

### Erasorik ez egotea da helburua, hori lortzerik badago epe labur baten?

Andraizea, Noka eta Kafrangak-eko taldekideakaz berba egiten egonda, esan eusten, hainbat kasu emon dirala espazio teoriaran seguruetan, baita Mobimentu Feministearen ekintzetan be. Erasotzaile batzuk euren presentziagaz, espazioak okupau eta deseroso bihurtzen ditue eta horren gainean hausnartzen ibili dira. Horregaitik, Mobimentu Feministatik, egoera horreek tratetako protokolo bat eta adierazpen idatzi batzuk prestatu gura ditue, erasotzaileei euren presentzia atse-

gina ez dala adierazoteko.

### Ertzaintza, Osakidetza... hainbat erakunderen erantzuna be behar izaten da batzuetan.

Oin arteko protokolo interinstituzionala, AUMk bere egunean egin ebana, zaharkituta egoan eta 2023an, barrizatzeko prozesua ipini da martxan, eta berrikuspene egin eta diagnostikoa zehaztu dira, araudi eta legedi mailan egin diran aurrerapenak protokoloan sartzeako; baita dagozan egiturak apur bat definitutako be: erantzun eta erantzukizun politikoa, erantzukizun teknikoa, gizarte eragilearen partaidetzea... Arreta mailan, arreta emotean egin beharreko ibilbidearen flujograma, Gizarte Zerbitzuena eta Hezkuntzakoa egin dira. Osakidetzagaz, Eratzaintzagaz eta Udaltzaingoagazkoak be bai.

Protokolo mankomunadu batek emoten deuskuna da, alde batetik, arautu eta eguneratu egiten dituala detekzioa eta prebenzioa indarkeria kasuei erantzuna emoteko, eta kasuen ibilbideak be zehazten ditu. Mahai desbardinaren eta esparru desbardinaren koordinazioa be eskaintzen dau. Hau da, protokoloak marko praktikoa emoten dau.

### Zein puntutan dago protoko-

### lo interinstituzionalaren berrikuspene?

Oin gabiz zirriborroaren azken ikuskapenak egiten. Lehenengotik, alderdi teknikoak. Teknikaritzaren desbardinak ikuskatuko dabe eta euren ekarpenak bilduko doguz. Ikuskapen horren ondorioak nik bateratuko dodaz eta ikuskaitza juridikoagaz kontrastau. Hortik aurrera, Mobimentu Feministegaz bigarren zirriborroa egitea litzateke. Ondoren, hausnarketa epe bat egongo da eta nire esperantzea da, urtailaren erdikaldera bigarren zirriborroaren aurkezpena eta Mobimentu Feministegaz batzarra egitea. Idea da eurek alde aurretik talde mailan hausnartutako, zirriborroa eukitea. Urtailaren amaierarako espero dot behin betiko txostena eginda egotea eta zezeilerako AUMek onartutea.

### Zertarako balio dau AUMko protokolo honek?

Gaur egun hainbat egitura eta protokolo eukitea lege bihurtu da. Plan mankomunaduagaz, udalei, udal protokoloa euki behar izatea arintzen deutse, erantzukizun politikori, ze onesten badabe protokolo hori, ez daukie legez, protokolo propio bat sortu beharrik.

Dima batek adibidez, badauka protokolo propioa; oin Lemoa be berea landuten dabil, baina protokolo mankomunatua, aterki orokor bat da, herrietako protokoloen errferente, marko teoriko edo legeletako aterpea: herri guztietan baliabide bardinak izateko, eta koherentzia maila bat mantendutako. Arratian, herri batzuentzat inportantea da herriko protokoloa izatea ikusten dan moduan, euren sentikortasun edo ahalmenagaitik; baina beste herri batzuei uste dot baliabide bat emotea dala, erantzukizun politikoa arintzen deusena.

### Esan daiteke egiturazko baliabideen aldetik oso positiboa izan dala urtea. Gizarte mailan eta indarkeriaren inzidentziari jagokonean, zelan ikusten dozu?

Gizarte eragilearen presentzia eta euren interlokuzioa protokoloaren hirugarren oina izateak, uste dot adierazoten dauala errealdade bat, konzienziarizinoari jagokonean. Protokoloak konpromiso politikoa eta herri edo bailara konzienziarizino potente bat adierazoten dau marketan dauzan pautetan. Adibidez, bizi izan doguzan biktimen inguruko alkarkidetzaren ariketak lideratu ahal

izatea, eta dokumentuan islatuta edo batuta egotea. Eta ezin da aitatu barik itxi, Mobimentu Feministearen aldetik dagoan konpromisoa eta aurrera egiteko grina.

Protokolo honek, flujogramen bidez, koordinazio ezinbestekoa dakar, indarkeriaren errealdade horri, kasuz kasu, aurre egiteko. Hortik aurrera esku-hartzea egokitzen joango gara eta andren ahotsak eta eretxiak biltzen. Eta euren preminak, grinak eta erispideak entzuteko kanalak sortzean.

### 2023an, indarkeria matxistea dala-ta egindako esku-hartzeetatik, ze ondorio atera dozu?

Prozesuak ez dira arinak, baina nire sensazioa da egituren trinkotasuna eta erantzuna emoteko gaitasuna badaukagula. Momentu honetan, persona batek prozesu bat hasten dauanean, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta AUMen dagozan baliabide guztiak aktibetan dira era koordinatu baten. Eta herri bakoitzean dagozan protokoloak, batzordeen arabera be aktibetan dira.

Protokolorik ez dagoan herrietan interlokuzioa egin da jentegaz eta esango neuke esku-hartze mailan erantzun egokia emoten dala.

**ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO  
SAREAN HARRAPAU?  
GERO ETA GEHIAGO GARA!**

**Instagram** 1.336 JARRAITZAILE  
**X** 404 JARRAITZAILE  
**f** 2.488 LAGUN

**begitu**



## MENDI LASTERKETEAK

## Kolazino Mendi Eguneko lasterketetarako izen-emotea zabalik

## Erredakzioa

Martiaren 16an izango da Bedian Kolazino Mendi Eguna. Lasterketa bi, 24 eta 16 kilometrokoak, eta mendi martxea, hau be 16 kilometrokoa, jokatu dira. Lasterketa bietarako eta mendi martxarako izena emon behar da [sportsmaniac.com](http://sportsmaniac.com) webgunean. Arrastian umeentzako lasterketea egongo da plazan.

Aurten izen-emoteak epe bi izango ditu eta zezeilaren 20a baino lehenago izena emoten dabenek 5 euro merkeago izango dabe izen-emotea. Honegaz, antolakuntzak izen-emoteak

atzen momentura arte ez ixtera animau gura ditu partaideak, denporaz egitea lagungarri egiten jakielako, euren esanetan. Aurten, partaideek, jana eta edanaz aparte, izerditzeko jerse bana izango dabe oparizat.

**Zezeilaren 20ra arte, merkeago** 24 kilometroko lasterketarako izen-emotea zezeilaren 20ra arte, 25 eurokoa da mendian federatuta dagozanentzat eta 27 eurokoa federatuta ez dagozanentzat; 16 kilometrokoan edo mendi martxan izena emon gura dabenek 20 eta 22 euro ordaindu beharko dabe hurrengo hurrengo. Ze-



zeilaren 21etik martiaren 10era arte, 5 euro gehiago ordaindu beharko da.

## LASTO JASOTZEA

## Beñat Amadek irabazi eban Arrapaladan Dimako I. Lasto Jasotze Txapelketea

## Erredakzioa

Abenduaren 23an jokatu zan Dimako frontoian I. Arrapaladan Lasto Jasotze Txapelketea. Hamaika probalari egon ziran lastoa jasoten eta jasoaldi gehien, 82 zazpi txandatan, Beñat Amade getxoztarrak egin ebazan. Atzetik, zazpi txandatan be, 76 eta 69 jasoaldigaz hurrengo hurrengo, Andoni Elizondo aguraindarra eta Oier Gonzalez maeztuarra egon ziran.

Honeen atzetik geratu ziran, laugarren eta bosgarren postuan, dimoztar biak: Jose Martin Bustinza "Tubi" eta Jon Loiola. Bost txandatan, 63 eta 51 jasoaldi egin ebezan etxekoek. Hurrengoak Iñaki Bereau, Eder Lopez, Unai Ardeo, Xabat Erleaga eta Bingen Erleaga geratu ziran.

## Tubi minduta

Tubik BEGITURI azaldu deusanez,

astea erdi gaixorik pasau eban eta probearen aurreko egunean jasoaldi batzuk egin ostean ebatzi eban parte hartuko ebala. Faborito nagusia zan eta irabazten hasi zan. Baina bigarren txandan, hankako bo-

lak igoten hasi jakozan. Masajeakaz lagunduta, baina guztiz indarbarritu barik, lehenengo postuan irauan eban bosgarren txandara arte. Holan, atzanean, ez segidutea ebatzi eban dimoztarrak.



Jose Martin Bustinza "Tubi".

Argazkia: Imanol Garcia.

## FUTBOLA

## Andrazkoen Arratia B eta gizonezkoen Arratia A aurreko postuetan dagoz

Lemoako Harrobik 0-1 irabazi eban abenduaren

23an etxetik kanpo eta andrazkoen Arratia B taldeak

1-5 Gabon egunean. Gizonezkoen Arratia Ak husna

bardindu eban atzen postuan dagoan Iturrigorri

Aren kontra abenduaren 23an Urbietan eta B taldeak

2-0 galdu eban etxetik kanpo Berriatuko taldearen

kontra abenduaren 22an.

## Erredakzioa

Gizonezkoen Arratia A taldeak Urbietan jokatu eban 2023ko atzen partidua Iturrigorri A taldearen kontra eta husna bardindu eban. 14 jardunaldiren ostean Arratia Ak 21 puntu ditu eta seigarren dago sailkapenean. Datorren partidua Zalla A taldearen kontra jokatu dau Urbietan barriro, hilaren 6an, goizeko 11:45ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak ostera etxetik kanpo jokatu eban Berriatuko taldearen kontra eta 2-0 galdu eban. 14 jardunaldiren ostean Arratia Bk 18 puntu ditu eta hamargarren postuan dago. Datorren partidua Loiu A taldearen kontra jokatu dau etxetik kanpo hilaren 7an, eguerdiko 12:00etan.

Andrazkoen B taldeak Gabon egunean, eguerdian, jokatu eban etxetik kanpo Ariz taldearen kontra eta 1-5 irabazi eban talde arratiarrak. Arratia Bk atzen hiru jardunaldiak etxetik kanpo jokatu ditu eta hiru garaipen jarraian lortu ditu. 12 jardunaldiren ostean 21 puntu ditu Arratia Bk eta bosgarren dago sailkapenean. Datorren partidua be etxetik kanpo jokatu dau Ibaiondo Nerbioi A taldearen kontra hilaren 7an, arrastiko 19:00etan.

Andrazkoen A taldeak ez eban

partidurik euki atzen jardunaldi honetan eta datorrena Berriozar talde nafarraren kontra jokatu dau Urbietan, hilaren 7an, eguerdiko 12:15ean. 13 jardunaldi jokatu ostean Arratia A bederatzigarren postuan dago eta 18 puntu ditu.

## Lemoako Harrobi

Lemoako taldeak abenduaren 23ko arrastian jokatu eban etxetik kanpo Ezkurdi A taldearen kontra eta 0-1 irabazi eban talde arratiarrak. 14 jardunaldiren ostean Lemoako Harrobik 21 puntu ditu eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua Gernika B taldearen kontra jokatu dau Arlonagusian hilaren 7an, arrastiko 16:30ean.



Dirastasio Ibari lasterketarako

# Gure

irastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 428 78 15 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urtokia 18a



## MARATOI ERDIA

# Onditz Iturbek Gasteizko Maratoi Erdia irabazi eta marka barria ezarri dau

Onditz Iturbe lasterkari igorretarrak irabazi eban abenduaren 17an jokaturako Gasteizko 45. Maratoi Erdia.



gainditu, eta marka barria ezarri. Gizonezkoetan, Urko Herran gasteiztarrak irabazi eban proba hiru garrenez 01:06:27ko denpora eginda.

Guztira 2.500 atleta baino gehiagok hartu eban parte. Andrazkoen podiuma, Barbara Ramonek eta Maria Zorrozak osatu eban; gizonezkoena barriz, Miguel Riscok eta Carles Montllorrek. Arabako Txapelketa be jokatuz bertan eta Urko Herranek eta Arrate Mintegik irabazi eban Arabako txapelak.

nire marka hobetutea" azaldu deutso BEGURI lasterkariak. Hori dala-ta, azken hileetan, hainbeste mendi lasterketa irabazi ostean, asfaltoan ibili da.

Motibauta eta gorputzez eta buruz ondo ekin eutsan Iturbek Gasteizko Maratoi Erdiari. "Dana ondo urten zan. Nire sensazioak onak izan ziran, fisikoki eta mentalki burrukarako prest nengoan. Egia da hotz handia egin ebal eta lasterketako zati gehiena bakarrik egitea tokau jatala, eta hor baegoan bildur puntutxo bat ea gai nintzan erritmo horri eusteko". Erritmoari eutsi eta kilometroz kilometro aurrera egin eban Onditz Iturbek, lasterketa irabazi, marka barria ezarri eta bere helburua zan marka personala hobetuz.

### Erredakzioa

Proba honetako 21 kilometroak, 01:16:34ko denporan egin eban Iturbek, Nieves Zarak 1999an ezarritako 01:17:45eko marka

### Helburuak beteta

Bere helburuak bete eban Igoerreko lasterketa honetan. "Ez da urte erraza izan, baina urtea amaituteko erronka bat ipini neutsan neure buruari: maratoi erdi baten

## PELOTEA

# Bueltan da Mugarri Desafioa, oingoan Arratiako anaien arteko txapelketa modura

### Erredakzioa

Urtailaren 5ean, 17:00etatik aurrera jokatuko da II. Mugarri Desafioa Dimako plazako frontoi txikian. 2020an, Dima eta Zeanuriren arteko izan zan pelota desafioa eta oingoan, eskupelotan dabizan edo ibili diran anaiak bikoteka arituko dira, beste ania batzuen kontra. Pelota saioa bakarrik ez, jai giroa be promestu dabe antolatzaileek, jana, edana eta musikeagaz: "Erregetako bezperako arrastipasa ederra!".

Parte-hartzaileak sei bikote izan go dira, hiru ania Zeanurikoak eta

beste hiru Dimakoak. Holan, Zeanuritik Erkiagatarrak, Beitiatarrak eta Intxaurregatarrak aurkeztuko dira desafioa. Dimatik barriz, Rekaldeatarrak, Asuatarrak eta Ziarrustatarrak.

### I. Mugarri Desafioa

2020ko garagarrian jokatuz I. Mugarri Desafioa, oin dala hiru urte eta erdi. Orduan Dimako Txumulueta eta Zeanuriko Joko Alai neurtu ziran Zeanuriren. Hiru partidu izan ziran: binakakoan, Zeanuri nagusitu zan; buruz burukoetan barriz, frontoi osokoa zein lau eta erdikoan, Dimak irabazi eban.



## PELOTEA

# Lau eta Erdiko Master Laboral Kutxako txapela jantzi dau Amaia Aldaik hirugarrenez

Amaia Aldaik, Buruz Buruko Master Laboral Kutxako txapela jantzi eban abenduaren 17an Durangon, Goiuri Zabaletari 22-13 irabazi ostean.

### Erredakzioa

Txapelketearen seigarren edizioa izan da eta eurretatik hiru irabazi ditu Dimako pelotariak.

Partidua hasi eta berehala aurreratu zan markagailuan Aldaik, 6-1. Sakeakaz eta ondorengo erremateakaz min egiten eutsan Dimakoak leizarrari. Dana dala, Zabaletak ez eban etsi eta laster orekatu eban markagailua 7-6ra ino hurreratu. Baina barriro be, bere sakeaz eta erremateaz baliatuz, Aldaik aldea atera eutsan barriro Zabaletari, 22-13 irabazi arte. Partidua irabazi ez arren,

Leizako pelotari gaztea, -Zabaletak 14 urte ditu- ez zan sari barik geratu, azpitxapeldun izateaz gainera, aurtengo pelotari errebelazinoaren kopea jaso eban eta.

Aldaik, bezperan Diario Vasco Torneo finala jokatuz eban Zumarragan, Enara Gaminderen kontra baina 13-22 galdu eban.

### Gazte mailan be txapela Dimara

Master Laboral Kutxako Lau eta Erdiko Txapelketan, elite mailako Aldaik ez zan izan Dimara heldutako txapel bakarra. Izan be, pelota mistoko gazteen mailan, Malen Lamadrid dimoztarrak jantzi eban txapela.



## MENDI LASTERKETA

# Zabaldu da Ubidestroi Trail lasterketan parte hartzeako izen-emotea

### Erredakzioa

Ubidestroi Trail lasterketearen hirugarren edizioa maiatzaren 11n jokatuko da. Lasterketeak 28 kilometro eta 2.000 metroko desnibela dauka. Izena *kronoak.com* webgunean emon daiteke maiatzera arte edo parte-hartzaileentzat dagozan 300 dorsalak amaitu arte.

Igazko edizioa sano arrakatsua izan zan, eta hirugarren honetan be arrakasta bardina espero dabe. Aurten, igaz lez, umeentzako "Ubidestroitxo" be

egin go da. Ubideko lasterketa Etiketa Berdea ekimenaren barruan dago. Lasterketearen ostean txaranga bat ibiliko da herritik eta jai ziurtatuta dagoala adierazo dabe antolatzaileek.

### Dorsal baten zozketea

Aurtengo Ubidestroiako dorsal bat zozketatuko dau antolakuntza Instagramen. Parte hartzeako atsegin dut emon behar da, iruzkin bat egin eta lagun bat etiketau eta *@ubidestroi\_trail* kontua segidu. Gura beste iruzkin egin daitezke.

**ANDRAMARI**

**TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA**

Otik 18 urtera arte

**ikastola**

ATEAK ZABALTZEKO EGUNA URTARRILAREN 20an 11:00etan

0 eta 1 URTEKO Matrikula Urte Osoko Zabalik

BISITA PERTSONALIZATUAK eta informazio gehiago

946732950 | zornotza@ikastola.eus | www.andramari.zornotzakoikastola.eus



## KONTZERTUA

Lemoako Gabonetako  
klasiko bihurtu dan  
Stankeik-en kontzertua  
egongo da urtailaren 5ean  
Karabie Gaztetxean

## Erredakzioa

2006tik urtero lez, urtailaren 5ean, 23:00etan Karabie Gaztetxean, Stankeik Band birsortuko da herriko musikariakaz, kanta ezagunen bersinoak egiteko. Hori bai kantea ezin da errepetidu.

Urtean kontzertu bakarra josten dau Stankeik bandeak, izan be, ez da talde bateratu bat,

ekimen autogestionau bat baino, "munduko kontzerturik popularrena", Harriketarrak Gazte Asanbladearen arabera. Izan be, publikoak aukeratuten dauz musikariak joko dabean kantuak, jenteari bere gustuko kantuak kantetako aukerea emoteko.

Bandea, Lemoako eta inguruko musikariakaz osotuten da eta musikariak urtero aldatuten dira.



## ANTZERKIA

Urpekontzi misteriotsua  
umeentzako ikuskizuna  
eskainiko dabe Lemoako  
Karabie Gaztetxean

## Erredakzioa

Urtailaren 3an, 18:00etan, *Urpekontzi misteriotsua* 3-12 urte bitarteko umeei zuzendutako ikuskizuna ikusi ahal izango da Lemoako Karabie Gaztetxean. Istoria kontetako, XX. mendeko abesti ezagunak erabilten ditue eta ikusleek musikearen erritmoan egingo dabe jantzan. Antzerkia, zuzeneko musikea, eta

jantzak batzean ditu ikuskizunak.

## Sinopsia

Simon, Bobby eta Janis aspaldiko lagunak dira. Udako egun bero baten, uriko asfalto atzean itxi, eta hondartzara joatea ebazten dabe. Uretan jolasean dabizala, urpekontzi itxurako zezer ikusten dabe urrunean. Baina gauzak ez ei dira itxurearen araberaokak...



## KONTZERTUA

Areatzako Bandak  
kontzertua eskainiko dau  
Lasarte Aretoan

## Erredakzioa

Areatzako Bandaren Gabonetako bigarren kontzertua urtaila-

ren 6an izango da, 19:30ean, Igorreko Lasarte Aretoan. Areatzan urte amaieran legez, bandeak, pelikula ezagunen soinu-bandak

joko ditu Atzoko eta gaurko zinema izenpeko kontzertuan.

Kontzertua entzutera doan publikoak jolas baten parte hartu eta sari bat irabazteko aukerea izango dau. "Telebista saio baten egotea modukoa izango da" azaldu deutso BEGITUARI Aritz Labrador Areatzako Bandaren zuzendariak. Joko dabean piezen inguruko galdera batzuk egingo ditue eta jenteari mobilagaz erantzun ahal izango ditu, zuzenean. Holan, kontzertuagaz gozatzeaz gainera, etxera sari bat eroateko aukerea be izango dabe bertaritzen diranek.

Areatzako abenduaren 30eko kontzertuan eta Igorrekoan, urtailaren 6koan, Areatzako Bandak pieza bardinak joko dituan arren, galderak desbardinak izango dirala jakinarazo dau zuzendariak, holan, gura dauana kontzertu bietara joan daiteke gaiaren gaineko bere ezagutzak neurtzeko.

ERAIKI DAIGUN  
ALKARREGAZ  
2024 EDER BAT

baserrigintza

Igorreko Industrialdea E2 · 48140 · IGORRE | 94 673 68 29 · 652 774 052  
sunaeraiketak@gmail.com www.baserrigintza.com



## HITANOIA

### Hitanoa berbiztuteko, aditzen "txuleta" banandu dau etxeetara BEGITUK

#### Erredakzioa

Aditzik ibilienak Arratiako hikan zelan diran jasoten dauan txuletea, BEGITUGAZ batera banandu da etxez etxe urtaileko lehen zenbakiagaz batera, 7.300 ale. Epe laburrean, Boltsikorako Hitanoa liburuxkea egin eta Arratia, Ubide eta Zeberioko biztanleen esku ipinteko asmoa be badago.

Izan be, hitanoaren egoerea gero eta eskasagoa dala jaubetuta, hiztun kopuruari zein kalidadeari jagokonean, berau bultzatzeko proiektua abiatu da, Zertu Kultur Elkartearen laguntasunagaz. Proiektuari babes eske, gutun bat aurkeztu dabe bultzatzaileek udaletan.

Gauza bi eskatzen jakie udalei: "Batetik, Arratia haraneko udalerri guztien konpromiso edo atxikimendua gai honeganako, zuen

babes instituzionala ezinbestekoa da-ta, hika bizibarrizteko edota herritarren ahora ekarteko. Eta bestetik, babes ekonomikoa, epe laburrean Arratiako hikaren hedatze prozesuan asko lagundu leikien egitasmo bi gauzatzeko: Txuleta izeneko txartelak inprimidu eta lau haizetara zabaldu; bigarrena, Boltsikorako Hitanoa liburuxkea jorratu, ezetu arazo eta Arratia, Ubide eta Zeberioko biztanleen esku itxi".

#### Proiektuaren sorrerea

Zemendiaren 11 eta 12ko astegienean, UEU, Ahotsak eta Badihardugu euskera alkarteek antolatuta, Euskal Herriko Lehengo Hika topagunea egin zan Oñatin. Topaketa horren helburuetako bat hitanoa bultzatzen dabizan eragileak alkar ezetutea zan, eta alkarlanerako bideak topetea.

**Txuletea:**  
**30 ADITZIK IBILIENAK**

Naz> nona / nok  
Zara> haz  
Da> dona / dok  
Gara> gozana / gozak  
Dira> dozana / dozak

Nintzen> nintzonan / nintzoan  
Zifien> hintzoan (hintzen)  
Zan> zofainan / zoan

## JOSKINTZEA

### Javier Barroeta diseinatzaile lemoaztarrak "Bilboko ospetsuak 2023" aintzatespena jaso dau

Abenduaren 18an, Javier Barroetak, Daniel Garcíak, Marta Ubietak eta Radio Bilbaok jaso ebezan Bilboko alkatearen eskutik 2023ko "Bilboko Ospetsuak" sariak.

#### Erredakzioa

Esther Iturrioz Lemoako alkatea be egon zan Bilboko sari banaketa ekitaldian, Barroetak konbidautu. Sari honek aitortza egiten deutso "Bilboren izen ona munduan zabalitzen egindako ibilbideari". Lemoaztarrari, bere ibilbide profesionalagaitik emon deusie saria. Barroetak, 1989an zabaldu eban bere atelier propioa eta modaren diseinua eta teknikak irakasteko lan handia egin dau. 2016an, Goi-mailako Joskintza Eskola inauguratu eban Bilbon.

Javier Barroeta Lemoako Aldape torrean bizi izan zan umetan. Ekitaldian azaldu ebanaren arabera, familia eleizatik hur bizi zan, eta, horrerri esker, ekitaldi eta ezkon-tza ugari ikusi ahal izan eban. Horreetatik deigarriena iruditzen jakona andren jantziak ziran, eta, batez be, emaztegaienak.

Gaur egun goi-mailako joskintzearen sortzaile handienetarikoa bat da, eta arte eta kulturako mundu mailako personak janz-

ten ditu. 2016an, bere ustez diseinatzaile gazte eta modaren munduko profesionalen artean egoan hutsunea beteteko zabaldu eban bere Goi-mailako Joskintza Eskola Bilbon, Adela Zu-

loaga emazteagaz batera, "jaso dodan guztia bizitzari itzultzeko, nire ezagutza hori belaunaldi barriei transmitiduz, Bilboko komundadearentzat nire ondare bihurtuz eta gure herria munduari erakutsiz" bere esanetan.



## DUNBA

### Bertso-saioa

Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak

Abenduaren 15ean, gaur bertan, bertso-saio bi egingo doguz Igoerreko Kultur Etxean eta aste honetan batez bere, urduri gagoz, azken prestaketetan gabizalako.

Arratia bailarako zein Bizkaiko Bertsolari Txapelketetan hainbat urtez parte hartu dauan Igor Menika Bengoetxea izan dogu astelehenero eskolan aitatutako saiook prestatzen laguntzeko.

Horretarako bertsolaritzearen nondik norakoak ikasten, ikusten, aztertuten eta batez bere kantetan jardun doguz saio ugari. Batzuetan pozik, besteetan lotseari eta bildurrari aurre ezin eginaz, izan be, jakingo dozuenez eszenatokiratzea ez da bape be erraza.



Neurriak, errimak eta doinu desbardinak landu doguz eta batez bere Markosen txarrixegustau jaku, askotan kantau dogu eta

doinu martxosoa eukiteaz aparte istorio barregarria kontetan dau. Bertso-saioan aurkezle, gaitzartzaile, bertsolari eta entzuleak

eukiko doguz; hau da, benetako bertso-saio bat antolatu dogu. Hasikerako eta amaierako agurrak, ofizioka lau oinak emonda bertsoa



osotutea, puntu erantzunak eta bakarkakoa bere egingo doguz.

Urduri eta irrikitan gagoz zelan urtengo dan jakin guran eta danok batera argazki bat aterako dogu hemen txertatuteko.

Zortziko txiki bategaz amaitu gura dogu artikulua:

BEGITUN irakurten baitogu euskeraz gure bertso-saioa heldu jaku erraz guran sinisten dogu ze bagara kapaz lo ondo egin baietz guk danok gaur gabaz.



## AGENDEA

URTAILAK 2  
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

## AREATZA

2024ko zezeilaren 3ra arte, merkeago egin ahal dira erosketak. 20 euroan erositako bonuak 25 euroko balioa eukiko dau. Komertzioak: Aliprox, Andikoa harategia, Gauzak, Arantza Zamalloa farmazia, Estankoa, Denda Barri fruta-dendea, + Ke PAN okindegia eta Vade retro ule-apaindegia.

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

## ARTEA

Oin eta behatzen estetika zerbitzua hilaren 19an. Hitzordua alde zurretik hartu behar da 615 747 050 telefonoan.

11:00etatik 14:00etara, Gabonetako ekintzak ludotekan. Hilaren 5era arte.

## BEDIA

Hilaren 9ra arte, Garbigune mobikorra Lehendakari Agirren (udaletxe ondoan). Bota daitezkan hondakinak: etxekotresna txikiak, sukaldeko tresnak, etxeko orioa, sakeleko telefonoak, kableak, pinturak eta disolbatzaileak, aerosolak, kutsatutako xurgatzaileak, tonerrak, tintazko kartutxoak, metalezko kapsulak, plastikozko kapsulak, pilak, CDak, DVDak, kaseteak eta erradiografiak.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Martiaren 16an izango dan Kolazino mendi lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik [sportsmaniac.com](https://sportsmaniac.com) helbidean martiaren 10era arte.

## DIMA

Ikastaro barriak 16 urtetik gorakoentzat. Zumba eta Hipopresiboak. Izen-emotea urtailaren 5era arte 94 631 57 25 telefonoan. Hipopresiboak: astelehenetan 17:30etik 18:30era eskolako kamaran, 15 euro Diman erroldatuek eta 25 euro ez erroldatuek (hileko); Zumba: martitzenetan eta eguenetan 18:00etatik 19:00etara eskolako psikogelan, 30 euro Diman erroldatuek eta 45 euro ez erroldatuek (hileko). Ikastaroak hilaren 8ko astean hasiko dira, Diman erroldatuek lehentasuna izango dabe, taldeak aurrera eroateko gitxienez 8 persona apuntau behar dira, leku kopurua (12) baino persona gehiagok izena emon ezker, zozketea egingo da eskatzaile guztien artean eta ordainketea hileroko egin behar da, hilaren 5. eguna baino

lehen.

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Hilaren 31ra arte, Argazki Lehiaketara bialdu daitezke argazkiak [harrera.dima@bizkaia.org](mailto:harrera.dima@bizkaia.org) helbidera.

## IGORRE

Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak antolatutako *Inguruko altxorrek ezagutu ala... suntsitu* erakusketea Kultur Etxean. Urtilaren 15era arte.

Astelehenetik eguenera liburutegia zabalik 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.


20:00etan, zinea, *Vidas pasadas* filma Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Bizikletak garbitzeko txartela berraktibatze kiroldegira joan behar da. Astelehenetik barikura 09:00etatik 21:00etara eta zapatu, domeka eta jai egunetan 09:00etatik 13:00etara.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.



19:00etan, Xabier Madariaga

Erromeriagaz zarratuko da  
Igorreko Gabonetako egitaraua

Urtailaren 13ra arte luzatuko da Gabonetako egitaraua, eta egun horretan, 18:30ean, erromeria egongo da Gauargi taldeagaz, jentek musike-agaz disfratua eta kantuan eta jantzan egin dagian.

Gauargik dauka jentea jantzan ipinteko eginkizuna zapatu iluntze horretan. Taldea 2012an sortu eben Amaia Txintxurretak eta Asier Castrok. Txintxurretak ETB 1eko Betizu saioan hasi eban bere abeslari ibilbidea. 16 urteagaz hasi zan erromeria talde baten kantuan eta harrezkerotzik hainbat musika taldetan eta telebista saiotan hartu dau parte. Goiena telebistako *Kantari* saioko aurkezlea be bada. Asier Castro, musika irakaslea, gitarra-jolea, tekladu-jolea eta DJ ekoizlea da. 20 urte baino gehiago daroaz herrietako plazetan eta beste agertokietan zuzeneko kontzertuak emoten.

Palestinaren zapalkuntzearen lekuko Karabie Gaztetxean.

## ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

## UBIDE

Maiatzaren 11n izango dan Ubidestro Trail mendi lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik [kronoak.com](https://kronoak.com) helbidean.

## ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

URTAILAK 3  
ARANTZAZU

Ludotekearen urtekerea Gasteizera patinatzerara, LH3-LH6 bitartekoentzat.

## ARTEA

18:00etan, Ameli eta Xirrikituen jostunek ipuin kontalaria, *Basoko sekretuak* Kultur Etxean.



## BEDIA

16:00etan, 8 urtetik gorakoentzat,

Gasteizko City Jumpera urtekerea; 17:00etatik 19:00etara, City jump eta askaria: pizza, patatak, txutxeak eta tartea.

## IGORRE

12:00etan, inaugurazioa, pilotuak Pump Track-ean.

## LEMOA

18:00etan, *Urpekontzi misteriotsua* umeentzako ikuskizuna Karabie Gaztetxean.

## ZEBERIO

17:00etan, ipuin kontalaria udaletxeko 2. solairuko gelan.

URTAILAK 4  
IGORRE

11:00etan, *Kutxak askatu* tailerra Lasarte Aretoan.

URTAILAK 5  
AREATZA

18:00etan, Erregetako Kabalgatea Karpon hasita, eguraldi txarra bada, plazan.

## BEDIA

18:30ean, Erregeen Kabalgatea frontoian.

## IGORRE

18:00etan, Erregetako Kabalgatea helduko da Lasarte Aretora. Gero Erregeak Kultur Etxean egongo dira gutunak hartzeako.

## LEMOA

23:00etan, Stankeik-en kontzertua Karabie Gaztetxean.

## ZEBERIO

11:00etatik 14:30era, Gabonetako Umeen Parkea plazan.

URTAILAK 6  
AREATZA

09:00etan, Arratiako Ernaik antolatuta, Gorbeiera mendi martxea Iturrimorrotik hasita. Bajatukeran, kopaua; 14:00etan, Gazte agerraldia plazan.



## IGORRE

18:00etan, Arratiako Ernaik antolatuta, bertso-saioa. Bertsolariak: Aritz Katarain, Janire Arrizabalaga eta Aissa Intxausti Axular Herriko Tabernan.

19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua. Atzoko eta gaurko zinema. Aritz Labrador Odriozolaren zuzendaritzapean

Lasarte Aretoan.

URTAILAK 7  
IGORRE

17:00etan, zinea, *Nobitaren dinosauro berria*; 19:30ean, *La Navidad en sus manos*. Lasarte Aretoan.

URTAILAK 8  
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 12ra arte, zezeilaren 16tik 18ra Baqueira Beret-era eskiatzera joateko izen-emotea liburutegian.

URTAILAK 10  
LEMOA

18:00etatik 20:00etara, Euskara Planeko batzarra. Aisialdia, kultura, kirola eta euskalduntzea. Euskara Plana diseinatze lan-mahaietan parte hartzeako emon izena <https://labur.eus/lemoalanmahaiaik> estekan.

URTAILAK 11  
LEMOA

19:00etan, *Aire!* dokumentalaren emonaldia Kotxepin Kultur Etxean.

URTAILAK 13  
LEMOA

16:00etan, Andra migratzaileen sareak sortzen, Johana Muñozen eskutik. Kulturgunean.

URTAILAK 14  
IGORRE

17:00etan, zinea, *Wish: el poder de los deseos*; 19:30ean, *Napoleon*. Lasarte Aretoan.



GORBEIALDE

LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO  
GARAPENEAN LAGUNTZEN



# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

#### BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m<sup>2</sup>) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

#### TXOKORAKO MAHAIK SALTZEAN DIRA

Mahaien neurriak: 2,80 metro luzeerea, 90 cm zabalera eta 8,50 cm lodiera. Prezioa: 300 euro. Eserlekua, 2,80 eta 3 metrokoak, 50 euro bakoak. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

#### ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeerea, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua.

Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

### LANA

#### GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

**Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

begitu

Zenbaki honetako saridunak:


**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Napoleon* filmarako.

Eba Urizar (Dima)  
Eneritz Atutxa (Lemoa)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La Navidad en sus manos* filmarako.

Jürgen Lange (Zeberio)  
Jon Urutxurtu (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**Dia %**  
**PEDRO AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
-  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
-  
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**  
AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

begitu  
eus



# begitu **20** urte

## 30 BAIETZ LAGUN BARRI EGIN!

### 2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, berriz Arra a-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako ballabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arra a-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?



\*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arra a-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  40€  60€  80€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

# IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)